



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Mungiaiko Udala

2019ko Lan-eskaintza Publikoa

Alkateak 2019ko martxoaren 7an ondoko Dekretu hau eman du:

Lehenengoa: Plantillan gertatutako aldaketak ikusirik, Udalaren 2019rako Enplegu Publikoko Eskaintza onesten da. Hala egiten dugu, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutua jasotzen duen apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 70. artikuluari jarraituta, eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legearen 22. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera; bigarren horrek dioen bezalaxe, aurrekontuan diru-kopurua esleitua duten giza baliabideen premiak langile berriekin bete behar direnean, enplegu publikorako eskaintza egingo da.

Bigarrena: Enplegu Publikoko Eskaintza bat dator luzatua izan den 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrak arautzen dituen uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikularekin, eta honi lotua, 1449/2018 Errege Dekretuarekin, abenduaren 14koa, zeinaren bitartez ezartzen den erretiro adinaren koefiziente erreduktorea, Tokiko administrazioa osatzen duten erakundeen zerbitzura dauden tokiko polizien mesedetan.

Hirugarrena: Eranskinean jasotakoak izango dira Enplegu Publikoko Eskaintzan aurreikusitako plazei dagozkien hizkuntza eskakizunak. Hala izango da Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen V. Tituluan (hizkuntza normalizazioari buruzkoa) adierazitakoa betetzeko, eta apirilaren 15eko 86/97 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorrita (horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera). Halaxe egingo da, Enplegu Publikoko Eskaintzari dagokion deialdia plazak betetzera zuzendua dagoen arren, eta ez lanpotuak betetzera zuzenean —lanpostuei dagozkient hizkuntza eskakizunak Udalaren indarreko lanpostuen zerrendan ezarrita daude, eta bat datos bere egunean Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek egindako txostenekin—.

Eskaintzen diren plazek derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ezarrita daukate (dagoen deialdia zehaztuko da dagokion hizkuntza eskakizuna), nahitaezkoa izango da hizkuntza eskakizun hori izatea plaza eskuratzeko; hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da oinarriant zehaztutako moduan.

Ikusirik Giza Baliabideetako atalburuak 2019ko martxoaren 4an egindako txostenak; Kontu-hartzailetzak egindako txostena. Eta apirilaren 2ko 7/1985eko Legearen 21. artikuluan jasotako eskumenak baliatuta, Alkatetza honek zera

XEDATU DOT:

Lehenengoa: 2019ko urteari dagokion, Mungiaiko Udaleko, Enplegu Publikoaren Eskaintza onestea, udaltzaingoko agenteen 7 plazarekin:

Taldea (7/07 legearen art.-aren arabera) Grupo (según art. Ley 7/07)	Sailkapena Clasificación	Plazaren deskribapena Descripción de la plaza	Plaza kop. N.º plazas	HE Perfil	Ezagupena Conocimiento
C1	Adm.Bereziko Eskala. Zerbitzu Bereziatoko Azpieskala: Klasea: Udaltzaingoa Escala de Adm. Especial. Subescala de Servicios Especiales: Clase Policía Municipal	Udaltzaina Agente P.M.	7	2	Carnets de conducir B, A2 Gidabaimenak



Bigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Mungian, 2019ko martxoaren 7an. — Alkatea, Ager Izagirre